

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5230

98/2022 EBAZPENA, azaroaren 24koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa hamaikagarren aldiz aldatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren eraikuntza dela-eta 2011-2025 epean egin beharreko zenbait lanetarako onartzen duen Erabakia argitaratzea xedatzen duena.

Gobernu Kontseiluak, uztailaren 26an egindako bilkuran, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa hamaikagarren aldiz aldatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren eraikuntza dela-eta 2011-2025 epean egin beharreko zenbait lanetarako, onartzen duen Erabakia onartu zuen, eta behar bezalako publizitatea emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sareari egindako kudeaketa-gomendioa hamaikagarren aldiz aldatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren eraikuntza dela-eta 2011-2025 epean egin beharreko zenbait lanetarako, onartzen duen Erabakiaren testua. Ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2022ko azaroaren 30a, asteazkena

ERANSKINA, AZAROAREN 24KO 98/2022 EBAZPENARENA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIARENA**ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREARI EGINDAKO KUDEAKETA-GOMENDIOA HAMAİKAGARREN ALDIZ ALDATZEA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TRENBIDE-SARE BERRIAREN ERAIKUNTZA DELA-ETA 2011-2025 EPEAN EGIN BEHARREKO ZENBAIT LANETARAKO**

Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldeak hartzen dituzten interes orokorreko herri-lanen trenbideen eta lurreko garraioen gaineko eskumen eskusiboa, hala xedatzen baitute Espainiako Konstituzioaren 149.1.21 eta 149.1.24 artikuluek.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du erkidegoaren intereseko obra publikoen eta Euskal Autonomia Erkidegoa soilik hartzen duten trenbide eta lurreko garraioen gainean, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa sustatu, garatu eta plangintza egiteko eskumenak eta lurraldearen antolamendu eta hirigintzaren gainekoak ere, hala xedatzen baitu Autonomia Estatutuaren 10.25, 10.31, 10.32 eta 10.33 artikuluek.

2006ko apirilaren 24an, lankidetza-hitzarmen bat sinatu zen, Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Adif Trenbide Azpiegituren Kudeatzailearen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria («Euskal Y»a) abian jartzeko beharrezkoak diren jarduketak garatzeko, Europako aurreikuspeni jarraikiz. Egun horretan bertan, lankidetza-hitzarmena bat sinatu zuten sinatzaile horiek beroriek, trenbide-sare berri hori eraikitzekeo jarduketa zehatz batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari agintzeko.

Gobernu Kontseiluak, interes publikoak lortzeko eraginkorragoa izango zelakoan, 2006ko ekainaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea ente publikoari agintzea honako jarduera hauek egiteko: EAEko trenbide-sare berriaren («Euskal Y»aren) Gipuzkoako adarrean 2006-2010 epean eraikuntza-proiektuak idatzi, obrak zuzendu, laguntza teknikoa eman, desjabetzearen kudeaketarako bulegoa mantendu eta desjabetze-espeditenteen kudeaketa-administratiboan laguntzea. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku utzi zituzten Sustapen Ministerioak eta Adifek, 2006ko apirilaren 24an sinatutako lankidetza-hitzarmenaren bidez. Kudeaketa-gomendio horren barruan sartutako lanak 2010eko abenduan amaitu ziren.

EAEko trenbide-sare berria eraikitzekeo lanak 2016an bukatzea aurreikusten zen.

Beraz, 2006ko apirilaren 24an sinatutako lankidetza-hitzarmenean ezarritako baldintzetan lanean jarraitu ahal izateko, Gobernu Kontseiluak, 2011ko uztailaren 12an egindako bilkuran, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari kudeaketa-gomendioa egin zion Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren eraikuntza dela-eta 2011-2016 epean egin beharreko zenbait lan egiteko, 141.810.000,00 euroko guztizko zenbatekoan.

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzekeo bereizitako zatien betetze-maiaren arabera, 2011ko uztailaren 12an onartutako kudeaketa-gomendioan aurreikusitako urteko ordainketak aldatu egin ziren, Gobernu Kontseiluak egun hauetan hartutako erabakiei jarraituz: 2011ko abenduaren 27an, 2013ko abenduaren 30ean, 2014ko uztailaren 29an, 2014ko abenduaren 30ean, 2016ko urtarrilaren 12an eta 2016ko irailaren 20an.

2017ko abenduaren 27an, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzekeo 2006ko apirilaren 24ko hitzarmenaren aldaketa sinatu zuten Estatuko Administrazio Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Adif eta Adif-Abiadura Handia enpresa-erakunde publikoek, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzekeo zenbait lan egiteko emandako kudeaketa-gomendioari buruzko 2006ko apirilaren 24ko hitzarmenaren aldaketa ere.

2022ko azaroaren 30a, asteazkena

2017ko abenduaren 27an sinatutako kudeaketa-gomendioaren hitzarmena aldatuta, eguneratu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeko 2006ko apirilaren 24an sinatutako hitzarmenaren bosgarren klausula, eta barnean hartu dira Bergara eta Lezoren arteko zatia gauzatzeko kostuen gainean onartu eta aurreikusitako kontratu-gorabehera guztiak, horren barruan Astigarraga-Oiartzun-Lezo zatia eta Donostiako geltokia barne hartzen duen zatia sartuta. Horrez gain, Ezkioko geltokia eta Astigarragako geralekua eraikitzeko jarduketa berriak ere gehitzen dira, bai eta Bergara-Lezo zatiko hainbat lan ere (besteak beste, zati horretako tuneletan larrialdietako irteera berriak gauzatzea, eta mendi-mazelak egonkortzeko zein dauden iturburuetan izandako eraginengatik egin beharreko lehengoratzeko-lanak). Hori horrela, aurreikusitako kostua handitu da, eta 2.343,36 milioi eurokoa izango da (BEZa barne).

Azaldutako aldaketa horiek guztiak direla-eta (2017ko abenduaren 27ko hitzarmenaren aldaketetan jasota daude), zazpigarrenez aldatu behar izan da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari emandako kudeaketa-gomendioa, eta aldaketa hori 2018ko martxoaren 6an onartu zen. 2018ko abenduaren 26an, 2020ko apirilaren 14an eta 2021eko ekainaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeko proiektu eta obren bilakaera ikusita, aipatutako gomendioaren zortzigarren, bederatzigarren eta hamargarren aldaketak baimendu dira, honako kontzeptu eta urteko ordainketa hauetan oinarrituta, proiektuak idazteari, obrak zuzentzeari eta proiektuak eta obrak zuzentzen laguntzeari dagokienez:

	2011-2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
1. Eraikuntza-proiektuak idaztea	11.298.853,28	346.099,10	2.000.000,00	1.800.000,00	500.000,00	500.000,00	200.000,00	16.644.952,38
2. Obren zuzendaritza	61.708.305,06	613.119,09	2.691.000,00	1.088.000,00	-343.000,00	-220.000,00	-39.000,00	65.498.424,15
3. Proiektuak eta obrak zuzentzeko laguntza	28.822.592,88	56.518,71	550.000,00	749.000,00	751.000,00	750.000,00	180.000,00	31.859.111,59
BEZ-IK GABE	101.829.751,22	1.015.736,90	5.241.000,00	3.637.000,00	908.000,00	1.030.000,00	341.000,00	114.002.488,12
BEZa (% 18 - % 21-% 0)	14.293.704,44	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	14.293.704,44
GUZTIRA								
BEZ-A BARNE	116.123.455,66	1.015.736,90	5.241.000,00	3.637.000,00	908.000,00	1.030.000,00	341.000,00	128.296.192,56

Eta kontzeptu eta urteko ordainketa hauen arabera, obrak egitearekin lotuta:

OBRAK EGITEA	2018-19	2020	2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
Ezkioko geltokia	0,00	0,00	2.552.000,00	2.393.000,00	0,00	0,00	0,00	4.945.000,00
Hernani-Astigarraga	4.073.020,39	13.392.444,88	22.265.000,00	20.942.000,00	9.270.000,00	4.325.000,00	0,00	74.267.465,27
Astigarraga-Oiartzun-Lezo	0,00	0,00	0,00	52.342.000,00	100.686.000,00	93.365.000,00	101.886.000,00	348.279.000,00
Donostiako sarbidea eta bertako geltokia	0,00	2.623.149,23	20.601.000,00	32.381.000,00	41.226.000,00	8.200.000,00	0,00	105.031.149,23
Astigarragako geralekua	0,00	0,00	0,00	855.000,00	2.136.000,00	1.709.000,00	0,00	4.700.000,00
Larrialdietako galeriak	965.274,44	8.744.993,69	4.365.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	14.075.268,13
Jarduketa gehigarriak	199.349,03	1.529.754,47	200.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	1.929.103,50
GUZTIRA								
BEZ-A BARNE	5.237.643,86	26.290.342,27	49.983.000,00	108.913.000,00	153.318.000,00	107.599.000,00	101.886.000,00	553.226.986,13

2022ko azaroaren 30a, asteazkena

2021eko abenduaren 23an, Estatuko Administrazio Orokorrak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Adif Trenbide Azpiegituren Administrazioak 2006ko apirilaren 24an sinatutako eta 2007ko abenduaren 27an aldatutako hitzarmenaren bigarren aldaketa eta luzapena sinatu zuten. Hitzarmen horretan, Astigarraga-Oiartzun-Lezo tarteko obrak gauzatzea baztertzen da, indarrean dagoen hitzarmena 4 urtez luzatzen da, eta exekuzio-kostuak 2.024,61 milioi eurokoak izango direla kalkulatu da (BEZa barne).

Alderdi horiengatik guztiengatik, hamaikagarren aldiz aldatu behar dira aurreikusitako urtekoak, eguneratutako aurrekontua doitu. Azaldutako guztia Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea ente publikoak egindako oharrei jarraituz erabaki da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 11.1.g) artikulua Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren esku uzten ditu trenbideen gaineko egitekoak.

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, 2022ko uztailaren 26an egindako bilkuran, gaia eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak hau erabaki du:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Trenbide Azpiegituren Kudeatzailearen (Adif) arteko 2006ko apirilaren 24ko lankidetzak-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berria eraikitzeke zenbait lanen gaineko kudeaketa-gomendioa emateari buruzkoa, bigarrenaz aldatzea eta luzatzea sinatu zen 2021eko abenduaren 23an. Aldaketa horren ondorioz, puntu hauek aldatzea erabakitzen da: 1.– Aurrekariak, 4.– Erreferentziako dokumentuak eta planteamendu orokorra, 5.– ETSk egin beharreko lanak, eta 6.– Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari emandako kudeaketa-gomendioaren lanen balorazioa eta ordainketa (2011ko uztailaren 12an onartu zen, eta, ondoren, aldatu egin zen 2011ko abenduaren 27an, 2013ko abenduaren 30ean, 2014ko uztailaren 29an, 2014ko abenduaren 30ean, 2016ko urtarrilaren 12an eta irailaren 20an, 2018ko martxoaren 6an eta abenduaren 26an, 2020ko apirilaren 14an eta 2021eko ekainaren 1ean), zehazki, 2011-2025 aldian EAEko trenbide-sare berria eraikitzeke zenbait lan egiteari dagokionez.

Bigarrena.– Erabaki honen eranskinean jasota datoz aipatutako kudeaketa-gomendioaren aldaketa egiteke baldintza zehatzak.

Hirugarrena.– Kudeaketa-gomendioaren aldaketa hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

ERANSKINA

1.– AURREKARIAK.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Trenbide Azpiegituren Kudeatzailearekin (Adif) 2006ko apirilaren 24an sinatutako eta 2017ko abenduaren 27an aldatutako lankidetzaz hitzarmena bigarren aldiz eta luzatzea sinatu zuen 2021eko abenduaren 23an. Aipatutako hitzarmen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Euskadiko trenbide-sare berria eraikitze gomendia egin zitzaion, Gipuzkoako Bergara-Irun zatirako.

2011ko uztailaren 12ko Erabakiaren bidez, Eusko Jaurlaritzak Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea ente publikoari gomendio hau eman zion: EAEko trenbide-sare berriko zenbait jardura egiteko, zeinak zenbait aldaketa izan baititu, 2011-2025 aldirian exekuta dadin.

Gaur egun, EAEko trenbide-sare berria eraikitze obrak amaitzeko, eta 2006ko apirilaren 24ko gomendio-hitzarmenaren –2017ko abenduaren 27an aldatu zen– bigarren aldaketa eta luzapenaren babesean, Eusko Jaurlaritzak ETSri emandako gomendioari jarraipena eman nahi dio, eta, ondorioz, ETSren esku utzi nahi du 2017ko abenduaren 27ko aldaketarekin gehitu diren jarduketak berrien eraikuntza-proiektuak idaztea, obrak zuzentzea, desjabetzeen arloan laguntzea zein obrak gauzatzea, kanpo utziz Astigarraga-Oiartzun-Lezo tarteko obrak exekutatzeko. Hori guztia Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea sortzeari buruzko 6/2004 Legeari jarraikiz, zeinak, eginkizunen artean, hau aurreikusten baitu: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean trenbideen gaian eskumenak dituen sailarekiko lankidetzaz teknikoa trenbide-garraioko azpiegituren plangintzan eta programazioan».

4.– ERREFERENTZIAZKO AGIRIAK ETA PLANTEAMENDU OROKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoan trenbide-sare berria eraikitze Estatuko Administrazio Orokorraren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Trenbide Azpiegituren Kudeatzailearen (ADIF) arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenaren bigarren aldaketari eta luzapenari eta gomendio-hitzarmenaren bigarren aldaketari eta luzapenari jarraikiz, Eusko Jaurlaritza «Euskal Y»aren plataformako eraikuntza-proiektuak idazten ari da Gipuzkoako adarrean, Bergarako 9+000 KPtik Lezoraino, honako lan hauei dagokienez, zehazki: Donostiako sarbidea (oraingo Iparreko geltokiaren kokalekuan geltokia egitea barne); Ezkioko geltokia; Astigarragako geralekua, eta mendi-mazelak egonkortzeko eta dauden iturburuetan izandako eraginengatik egin beharreko leheneratze-lan gehigarriak, bai eta horiek guztiak gauzatzea eta tuneletako larrialdi-irteerak ere. Ondoren kupotik dagokiena kenduz finantzatzeko dira lan horiek.

Gipuzkoako adarreko obretarako aurreikusitako kostua, 2011-2025 eperako, 2.024,61 milioi eurokoa da (BEZa barne) (taulako zifrak ere milioi eurotan datoz):

EAETSB-REN AGINDUA	2016rako	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
BIGARREN ALDAKETA (*)	1.587,97	99,34	73,30	12,40	46,97	48,20	48,19	51,59	34,87	21,78	2.024,61

Eusko Jaurlaritzaren gomendio honen ondorioz, beraz, ETSk egingo ditu EAEko trenbide-sare berriaren Gipuzkoako adarreko eraikuntza-proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko lanak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku utzi baitira 2021eko abenduaren 23an

bigarrenez aldatu eta luzatu den gomendioaren lankidetzeta-hitzarmenaren ondorioz. Horiez gain, honako obra hauek ere gauzatuko ditu:

- a) Donostiako sarbidea, eta hiriko geltokia oraingo Iparreko geltokian egitea.
- b) Ezkioko geltokia eraikitzea.
- c) Astigarragako geralekua eraikitzea Adifek kudeatzen duen zabalera iberiarreko sarean.
- d) Bergara-Lezo zatian jarduketa berriak gauzatzea:

– Tuneletan larrialdietako galeriak egitea, Europar Batasuneko Batzordearen 2014ko azaroaren 18ko 1303/2014 (EB) Erregelamenduari jarraikiz.

– Jarduketa gehigarriak: mendi-mazelak egonkortzea eta lehengoratzeko lanak dauden iturburuetan izandako eraginengatik.

Halaber, Hernani-Astigarraga zatian egin beharreko lan guztiak (haitako batzuk jasota daude Eusko Jaurlaritzak sinatutako kontratuan, zeina deuseztatuko baita) eta aipatutako lanei lotutako beste edozein obra gauzatzeaz ere arduratuko da.

5.– ETS-K EGIN BEHARREKO LANAK.

Puntu honetatik kanpo uzten da e) Obrak exekutatzea apartatuaren barruko b) Astigarraga-Oiarzun-Lezo tartea epigrafea.

6.– EGINDAKO LANAK BALORATZEA ETA ORDAINTZEA.

Gomendioan emandako lanen kostua, BEZa barne, 133.222.742,49 eurokoa da (horren barruan sartzen da proiektuak idaztea, obrak zuzentzea eta proiektu eta obrak zuzentzen laguntzea); eta hamabost urteko epea aurreikusi da horiek burutzeko, erantsita datorren taulan jasotako konzeptu eta urteko ordainketen arabera.

Enkargu honen ondorioz egiten diren lanak hileroko ordainduko dira, egindako lanak justifikatu ondoren betiere. Horretarako, kasuan kasuko faktura aurkeztu beharko zaio Administrazioari.

	2011-2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
1. Eraikuntza-proiektuak idaztea	11.298.853,28	346.099,10	738.753,33	1.862.000,00	1.900.000,00	500.000,00	500.000,00	17.145.705,71
2. Obren zuzendaritza	61.708.305,06	613.119,09	943.163,99	1.279.000,00	1.033.000,00	2.655.000,00	2.050.000,00	70.281.588,14
3. Proiektuak eta obrak zuzentzeko laguntza	28.822.592,88	56.518,71	302.632,61	580.000,00	580.000,00	580.000,00	580.000,00	31.501.744,20
GUZTIRA								
BEZ-IK GABE	101.829.751,22	1.015.736,90	1.984.549,93	3.721.000,00	3.513.000,00	3.735.000,00	3.130.000,00	118.929.038,05
BEZa (% 18 – % 21-% 0)	14.293.704,44	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	14.293.704,44
GUZTIRA								
BEZ-A BARNE	116.123.455,66	1.015.736,90	1.984.549,93	3.721.000,00	3.513.000,00	3.735.000,00	3.130.000,00	133.222.742,49

2022ko azaroaren 30a, asteazkena

Obrak exekutatzearekin lotuta gomendioan emandako lanek, BEZa barne, 209.152.490,79 euroko balorazioa dute, eta zortzi urteko epea aurreikusi da horiek burutzeko, erantsita datorren taulan jasotako kontzeptuen eta urteko ordainketen arabera.

Enkargu honen ondorioz egiten diren lanak hileroko ordainduko dira, egindako lanak justifikatu ondoren betiere. Horretarako, kasuan kasuko faktura aurkeztu beharko zaio Administrazioari.

OBRAK EGITEA	2018-19	2020	2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
Ezkioko geltokia	0,00	0,00	973.899,08	1582000			2300000	4.855.899,08
Hernani-Astigarraga	4.073.020,39	13.392.444,88	19.834.813,32	24175000	14178000	7980000		83.633.278,59
Astigarraga-Oiartzun-Lezo	0,00	0,00						0,00
Donostiako sarbidea eta bertako geltokia	0,00	2.623.149,23	8.811.808,04	15138000	35270000	24578000	14225000	100.645.957,27
Astigarragako geralekua	0,00	0,00			1709000	1991000	1000000	4.700.000,00
Larrialdietako galeriak	965.274,44	8.744.993,69	2.233.129,47	1325000				13.268.397,60
Jarduketa gehigarriak	199.349,03	1.529.754,47	46.854,75	273.000				2.048.958,25
GUZTIRA								
BEZ-A BARNE	5.237.643,86	26.290.342,27	31.900.504,66	42493000	51157000	34549000	17525000	209.152.490,79

Gomendioan emandako lanei lotutako konpromiso-kredituak, bai proiektuak idazteko, obren zuzendaritzetarako eta proiektu eta obren zuzendaritzei laguntzeko, bai obrak exekutatzeko, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen aurrekontuetan daude. Aurrekontu horiek, ETS zuzenbide pribatuko ente publikoa denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sartzen dira, eta lege bidez onartzen dira aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako.